


EGUNEKO GAIAK

EG4

BERA BERAREN ZORTZIGARREN LIGA


IMANOL ALVAREZ
BERA BERA KO ENTRENATZAILEA

Bera Berako entrenatzaile gisa bigarren etapa ari da bizitzen Imanol Alvarez (Ermua, 1967). Dagoeneko lau urte egin ditu segidan karguan, Kopa bat eta hiru Liga erreskadan irabaziz. Ez da jarri atzera begira, eguneroko lanaz disfrutatzen baitu.

«Gozatua izan da Kopan sufritu zuten horiei ordainsaria ematea»

Ane URKIRI ANSOLA | DONOSTIA

«Nik idealizatuta daukadan joka-moldetik gertuago ikusi dut taldea aurten», onartu du Imanol Alvarezek GARARI eskaintako elkarrizketan. Bere laugarren Liga irabazi berri, lasai dago ermua-rra, eguneroko lanean zentratuta –txirrindularitza zalea izanda, hori bai, Giroa «apur bat» ere ikusten du-. Liga titulua jada eskuan duten arren, datozen hiru partidak irabazten saiatuko dira, «arerioei errespetuagatik» eta, bide batez, denboraldia borobiltzeko. Garaipenen atzean dagoen lana nabarmendu nahi izan du.

Kanpotik sentsazioa da nahiko erraz aritu zaretela Ligan. Horregatik, agian, oharkabean pasatu da eskuratutakoa?

Erraza ez da izan. 23 partida jokatu eta soilik bat galdu eta beste bat berdintzea ez da inoiz erraza. Beste kontu bat da jende guztiak gu faboritotzat ematea aldeztu aurretik. Hori, baina, gehigarri bat da guretzat, esan nahi baitu guzak ondo egiten ari garela.

Eli Cesareok Bera Berak irabazitako Ligak ez direla hainbeste baloratzen ematen duela aipatu zuen elkarrizketa batean. Bakoitzak eman behar dio balioa. Denboraldi osoa jaitsiera saihas-teko borrokan bazaude eta ez bazara jaisten, ospatzeko moduko lorpena da, garaipena. Hemen, urte guztia lehen postuan eman dugunez, badirudi mundu guztia gure akatsen zain dela. Kopatik kanporatzen bagaituzte, beti dirudi gure akatsa; Liga irabazten ez badugu, gure errua da... Bidegabea da. Ulertzen dut garaikur asko irabaztetik gatozenez jendeak hori espero duela, baina titulu oro ospatu behar da. Taldean, gure erara ospatu genuen Gijonen eta seguru oraindik ere afari gehiago egingo ditugula!

ERREKUPERAZIOA

«Hain aste zaila pasa ostean, hemen nagoenetik aste zailena, ondo erreku-peratu ginen beste final bat genuela jakinik»

Elxen irabazi eta Rocasak galdu ostean, urrats handia eman zenuen. Nola mantentzen da taldea motibatuta jakinda Liga esku-eskuan daukala?

Beti faborittoa zarenean, presio hori motibagarria da. Jendeak ez du galdu nahi. Egia da Elxen irabazi osteko astean eta gero Gijonek galdu eta guk irabazi genuenean, abantaila handitu genuela eta horrek lasaixeago uzten zaituela. Zure esku dago guztia.

Taldeak behar zuen Gijonen lortutako garaipena Kopa eta gero apur bat animatzeko?

Bai, bagenekien lau saiakera genituela partida bakar bat irabazteko. Baina hain aste zaila pasa ostean, hemen nagoenetik aste zailena, ondo erreku-peratu ginen beste final bat genuela jakinik. Batez ere, Gijongo pabiloira zaleak sartu ziren une hori hauspo handia izan zen. Denok genekien bertan egongo zirela, baina, zaleak taldea animatzen ikustean, aurreko astean eman ez geniena itzultzeko aukera ederra ikusi genuen guztiok.

Guardesen aurkako Kopako porrota Ligan bi aste lehenago

arerio bera oso erraz menderatu eta gero iritsi zen. Ez zen, baina, batere arerio makala...

Nahiz eta zuk erraz irabazi, edozein taldek garaitu zaitzake. Beste gauza bat da gu oso konstanteak garela. Askotan esan ohi diet jokalariei irabazten dugunean ez dela besteek huts egiten dutelako, baizik besteek baino hobeto jokatu dugulako. Okerrago jokatzen badugu, galdu egingo dugu. Eta Atletico Guardesen aurka hori gertatu zen. Oso adibide ona da bi aste lehenago etxean ondo nagusitu ginelako eta A Guardan ere ondo nagusitu ginelako.



Bera Berak irabazi dituen zortzi Liga tituluetatik lautan zu izan zara entrenatzailea. Azken hiru Ligak segidan irabazi dituzu. Nola sentitzen zara?

Ez naiz jarri pentsatzen, eguneroan soilik pentsatzen dut. Irabazten dugunean, bakarrik egotea gustatzen zait, niregan pentsatu, egin dugun lanean, familian... Eta gero taldearengana joan, zaleengana. Gozatu handia izan da Kopan hainbeste sufritzen zuten horiei ordainsari hain gozoa ematea.

Lehen etapan denboraldi bakar batean hiru garaikur irabazi zenituen. Orain hori errepikatzea zailagoa da?

Uste dut Liga hobetu egin dela, baita taldeak ere. Reyes Carrerek irabazi zituen lehen aldiz hiru garaikur, eta gero nik 2013-2014 denboraldian, baina orduan jada senak esaten zidan gero eta zailagoa izango zela. Aurreko urteetan zenbait taldek krisi ekonomiko latza jasan zuten, batzuk desagertu ere egin ziren, Itxako tartean. Bera Berak gauzak ondo egiten jakin zuen, etxea teilatutik hasi gabe, eta horrek eraman du gorenera. Hamarkada batez urtero gutxienez garaikur bat irabaztea ez da kasualitatea, gauzak ondo egiten diren seinale baizik. Baina Liga hobetzen ari da, jokalaria kanpora joaten dira baina maila handiko gazteak daude eta guztiek ezin dute Bera Beran edo Rocasan jokatu. Dena parekatzen ari da.

Nostalgiko hutsak gara?

Guztiok gogoratzen ditugu Realak irabazitako Ligak eta hori nostalgikoentzat ondo dago. Oroitzapen hori lehen pertsonan bizi duten horiek sortzen dute eta hori helarazi nien Gijonen, Bera Beraren historian lerro batzuk idaztear ginela: 21. titulua, hirugarren Liga erreskadan...



Jon Urbe | FOKU

Urte guztian zehar konstantzia hori mantentzeko orduan, talde zabala izatea gako izan al da? Irakurri dut ez duzula nahi hain talde zabala izatea...

Uste dut gehiago dela mentalitate kontua, ez dut uste konstantzia hori jokalarikopuruarekin lotuta dagoenik. Iaz hamalau jokalarirekin geratu ginen hiruk min hartu zutelako (Sara Gil, O'Mullony eta Boada), eta bigarren faseko partida guztiak irabazi genituen, onenen aurka lehiaztzen gainera. Ez da hainbeste jokalarikopurua, baizik eta dauden jokalariek maila zehatz bat izatea -eta hemen denek dute- eta guztiak inplikaturik egotea. Gero eta jokalarik gutxiago izan, are inplikaturik sentituko dira denak. Batzuetan, entrenatzaileok denbora gehiago eman behar izaten dugu jende guztiari baliagarri izan daitekeela helarazten...

Eta hori zaila da?

Entrenatzea baino zailagoa! Jokalaria berekoia da, bere lana da eta hobetu nahi du, onena izan nahi du, eta taldekideekin lehian dago. Beste modu bateko lehia da, baina, azken finean, lehia. Uste dut oreka mantentzea errazagoa dela 14-15 jokalariko talde batean. Gainera, horrela harrobiko jendearekin lan gehiago egitera ere

TALDE MOTZAGOA

«Oreka mantentzea errazagoa da 14-15 jokalariko talde batean. Gainera, horrela harrobiko jendearekin lan gehiago egitera ere derrigortuta zaude»

derrigortuta zaude. 17 jokalarik baldin badituzu, harrobikoan parte hartzea bigarren planoan geratzen da. Eta gure harrobiko jendeak edo gure harrobira etor daitekeen jendeak ikusi behar du lehen taldearekin jokatzeko ez dela urruneko kontu bat.

Hala ere, minutuak banatu dituzu guztien artean, ez duzu desoreka handirik sortu.

Hemen guztien maila antzerakoa da, zorte hori daukagu. Ni jokalaria izan naiz eta jokatu gabe egon naizenean eta bat-batean jokatzeko egokitu zaidanean norbaitek min hartu duelako ez da

gauza bera. Taldearen parte sentitu behar duzu, benetan, ez soilik hitzez. Oso garrantzitsua da jokalarien artean minutuak banatzea eta, hamar minutu jokatzen badituzu, topera izatea.

Lau urte jarraian bete dituzu dagoeneko bigarren etapa honetan. Nola sentitzen zara?

Oso pozik. Itzuli nintzenean erabaki nuen entrenatzaile bezala bizitzen saiatu nahi nuela jubilatutako arte eta, horretarako lekurik egokiena, nire etxea da. Ezer arrarorik gertatzen ez bada eta hemen nahi banaute, hemen jarraituko dut. Espainiako selekzio absolutuan ere banago orain eta ea nola joaten den uda: Juniorren selekzioa uzteko asmoa neukala iritsi zitzaidan absolutuaren deia. Uda familiarekin denbora gehiago egoteko behar nuen, deskonektatzeko, uste dudalako beharrezkoa dela. Aurten egun gehiago hartzen saiatuko naiz, urtea aurrera doan heinean higidura hori igartzen baitut.

Bera Berak zer behar du Europan lehiakorra izateko? Aurten izan zarete, Paris 92 kanporatu zenuten...

Bai, baina beti baldintza kaskarragoetan lehiatzen gara eta hori onartu behar dugu. Beraiek

aurrekontu hobeak dituzte eta, beraz, beste gauza batzuetan saiatu behar dugu aurkariak baino hobeak izaten: jokoan, partiduen prestaketan, gehiago borrokatzen... Inoiz lortu dugu multzoen fasera iristea eta horrek esan nahi du posible dela.

Zer duzu nahiago, EHF European League jokatzeko edo maila baxuagoko txapelketetan finalera iritsi?

Gauzak lortzea kostatzen zaigun txapelketa horiek jokatu behar ditugu, multzoen fasera iristea kostatzen zaigun horiek. Ahalik eta urrunen iristeko borrokatzea beharrezko dugu; konfort gunean geratzen bagara, akabo.

Aurten, partidua hasieretan arazoak izan dituzue batzuetan...

Bai, eta azkenean aurrera ateratu ditugu partidua, baina ezin gara despistatu. Badakit oso zaila dela Gijonen erakutsi genuen maila urte guztian mantentzea. Gijonen motibazioa izatea errazten, mundu guztiak nahi ditutalako partidak irabazi. Baina horra iristeko, Zonzamasen irabazi behar da, Tenerifen... Era berean, egia da Bera Beraren aurka jokatzeko erraza dela, inork ez dauka ezer galtzeko. Dena dela, ez litzaidake gustatuko horrelako egoera batean egotea; nahiago dut beti irabazteko behar hori izatea. Erakargarriagoa da, estresagarria ere bai, baina hori kudeatzen jakin behar da.

Cristina Poloniok zioen berarentzat zailagoa dela jaitsiera saihesteko borrokan ibiltzea.

Poloniok bi jaitsiera bizi izan ditu eta oso gogorra da. Jaisten zarenengan, urteko esfortzua ez duela merezi izan dirudi. Etxean Kopatik kanpo geratze baino gogorragoa da. Jaitsiera bat sufritzen duzunean, gauza asko jartzen dituzu zalantzan.

MUTRIKU



El diputado de Medio Ambiente de Gipuzkoa, José Ignacio Asensio, con el cartel anunciador de la película. A.G.

Proyección de la película 'La vida secreta de los árboles'

Será hoy a las 19.00 horas en Zabel, con entrada gratuita

A. GORRITIBEREA

MUTRIKU. La II Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzkoa, que se está celebrando en nueve municipios guipuzcoanos, llegará hoy a Mutriku con la proyección del documental 'La vida secreta de los árboles', que se anuncia para las 19.00 horas en Zabel con entrada gratuita. El documental está basado en el libro de Peter Wohlleben, donde se recogen los bosques alemanes de producción forestal de la parroquia de Wershofen y donde se cuenta de una manera entretenida y esclarecedora sobre la solidaridad y la cohesión de los árboles y todo ello en base a las entidades vivientes en sendas visitas guiadas por el bosque.

En la presentación del Gnat Zinema, el diputado de Medio Ambiente, José Ignacio Asensio, afirmó que «la muestra es un proyecto abierto a todo el que crea que tiene algo que aportar a favor de la naturaleza, tanto desde el mundo de la defensa como desde el mundo de la divulgación creativa».

Hay que recordar que Gnat Zinema forma parte de Gipuzkoa Naturaldia, un programa de eventos y recursos dirigido a todos los públicos para impulsar la conexión con la naturaleza en general y con naturaleza de Gipuzkoa en particular.

Campeonato de silvestrismo

Entre los muchos eventos que se anuncian para el fin de semana, destaca el Campeonato de Euskadi de Silvestrismo que se celebrará en las campas de Galdonamendi el domingo a partir de las 9.00 de la mañana. En el campeonato



Uno de los jilgueros que anima las calles mutrikuarras. A.G.



Uno de los muchos espacios arbóreos de la localidad. A.G.

organizado por las federaciones Vasca, Guipuzcoana y la entidad local Txori Etxe elkarte, participarán jilgueros, mixtos de jilguero, pardillos y mixtos de pardillo, pero cada participante deberá de presentar la licencia federativa de caza, las aves anilladas, la documentación del aves y las jaulas precintadas en el campeonato provincial, en definitiva un protocolo digno de los mejores campeonatos.

Visitas para el fin de semana

Para mañana viernes a partir de

las 16.00 horas se anuncia la visita guiada 'Mutriku Mariñela', mientras que el sábado a las 11.30 se anuncia la vista al palacio Arrietakua, al igual que el domingo también a las 11.30 de la mañana. El domingo también habrá otras dos visitas a la planta de aprovechamiento energético de las olas insertada en el Muelle de Abrigo, a las 17.30 y a las 18.30. Las inscripciones hay que efectuarlas en la Oficina de Turismo llamando al teléfono 943 603 378.

SORALUZE

La peluquería del hogar sale a subasta

Se trata de una adjudicación para dos años, prorrogables, y el plazo de presentación de propuestas finaliza el 1 de junio

NEREA ISASTI

SORALUZE. El Consistorio ha sacado a subasta el servicio de peluquería del hogar del jubilado Itxaropena. Se trata de una adjudicación para dos años, prorrogables anualmente hasta cuatro años. El plazo de presentación de propuestas finaliza el 1 de junio.

La persona o empresa adjudicataria del servicio deberá abonar al Ayuntamiento 60 euros mensuales y los gastos de electricidad, gas y agua corren por cuenta del Ayuntamiento. El servicio deberá ofrecerse de lunes a viernes por la mañana y por la tarde, con un día de descanso semanal, y los sábados en horario de mañana. Podrá cerrarse un mes por vacaciones, dentro del período com-

prendido entre el 1 de julio y el 15 de septiembre.

Pelota

Mañana viernes se disputarán varios partidos de pelota en nuestra localidad. A partir de las 19.00 horas, los alevines de segunda división se enfrentarán a Mundarro. A continuación, en primera división de cadete, el local Caramanzana jugará contra Otazu, de Aretxabaleta.

Por otra parte, el martes, en el Torneo Udaberri, la pareja local formada por Atxotegi y Balderdi se impuso a la pareja de Bergara por 22 a 5.

Música

Este sábado habrá dos conciertos en Soraluze. Por una parte, a partir de las 19.00 horas el antzoki acoge el espectáculo de Iñaki Salvador y Loyola Garmendia que lleva por título 'Real book'.

Por otra parte, el gaztetxe ofrece el concierto de los grupos Sofa y Braulio a partir de las 22.30 horas

ERMUA

Se renovarán las escaleras mecánicas de Zerukoia

El coste total de la obra es de 373.051,47 euros y se prevé que las escaleras estén disponibles en la primera quincena de junio

K. ITURRIAGAGOITIA

ERMUA. El Ayuntamiento de Ermua informa de que esta semana se han puesto en marcha las obras de renovación de las escaleras mecánicas 3, 4 y 5 del barrio de Zerukoia.

Las escaleras mecánicas de Zerukoia se estrenaron en el año 2007. El fuerte desnivel de la calle Zerukoia se salvó con la instalación de cinco tramos para mejorar la accesibilidad a las personas residentes en el grupo Santiago. Su parte más alta está conectada con Ongarai y con el Instituto mediante un ascensor desde el verano de 2016.

En los últimos años se han producido diversas averías en estas instalaciones y los tiempos de reparación se han prolongado en muchas ocasiones por la dificultad de adquirir los

recambios. Por lo tanto, para evitar elevados costes de mantenimiento y largos tiempos de espera, se ha optado por renovar las escaleras.

Estas nuevas y modernas instalaciones incorporarán además un sistema para informar en tiempo real del estado de las mismas.

La Concejala de Servicios del Ayuntamiento de Ermua, Rosa María Cid, ha informado de que el coste total es de 373.051,47 euros. Se prevé que las escaleras estén disponibles para su utilización a partir de la primera quincena de junio.

Debido a las obras de sustitución de las escaleras, las diferentes zonas del barrio Zerukoia sufrirán afecciones al tráfico para que puedan acceder los vehículos pesados y las grúas para transportar todas las piezas.

Según el plan previsto, los días 11 y 19 de mayo se prohibirá el paso a la calle Zerukoia 3 para poder sustituir las escaleras 4 y 5. Por otra parte, los días 12 y 18 de mayo, la calle afectada será Zerukoia 2 por la escalera 3.